

Liburuak

KRITIKA

Haur besoetakoa. Jon Mirande.
Lur, 1970 (2007an Ereinek berrargitaratua)
124 orrialde. 6 euro.



Hemeroteka
Gorka Bereziartua

Mirandereren alegoria?

EZ ZAIT KONPARAZIOA INTERESATZEN, baina sarri alderatu izan da Jon Mirandereren *Haur besoetakoa* Vladimir Nabokoven *Lolita*arekin. Bada nahiko motibo, azaletik begiratuta: bietan pedofilia kasu baten bueltan egituratzen da istorioa, eta garai beretsuan idatzi ziren (1959koa duzu Miranderena, 1955ekoa Nabokovena), nahiz eta *Haur besoetakoak* tiradera batean lo egin urte askoan, 1970ean Lur-ek argitara eman arte. Baina esan dudana bezala, ez zait konparazio hori interesatzen. Eta orduan –galdetuko duzu, irakurle– zergatik hasi erreseina hori aitatzuz? *Lolita*z idatzi diren komentario ugarien artean badelako bat, Fredric Jameson-ek *A singular modernity*n egina, oso baliagarria zaidana Mirandereren nobela honetaz hitz egiteko –ados, azkenean esan daiteke konparazioa interesatzen zitzaidala, baina beste modu batera–.

*Lolita*n agertzen zaigun sedukzioa, Jamesonen esanetan, alegoria bat da: AEBetako masa-kultura nerabe eta oihasak Europa zaharra (kultuegia, munduaz nazkatua) seduzitzen du. Eta galdera da: interpretazio hori *Lolita*rentzat ona bada, ez al ginatke saiatu behar *Haur besoetakoari* beste irakurri bat ematen, pedofilia kontuak bigarren planoan utziz? Azalean bistakoa baita narratzailearen gaixotasun mentala, nabarmena haren misoginia, baitezpada-koa haren ezin bizia. Baina hori baino gehiago ere badagoela iruditzen zait.

Eta bai, idatzi zen garaiarengatik, egon liteke alegoria bat *Haur besoetakoako* narratzaileak Theresa txikia bereganatzeko nahiaren atzean: Euskal Herri abertzale tradizionalak mundu modernoan bestelako irteera ideologiko bat bilatzeko desioa, hain zuzen ere. Ez ahaztu: aitabitxia familia aristokratiko bateko seme da, baina familiaren egunik loriosenak ugertu ziren aspaldi –euskal abertzaletasunarenak bezala, 1950eko hamarkadan–; hala ere, kanpotik datorrena baztertzen du –otseina, emaztegia–, eta etxeko txikian bilatzen du ezinezko zoriona. Ez al du protagonistaren jarrera horrek ederki islatzen Mirandek ideologikoki bere garaiari eman zion erantzuna? Abertzaletasun kristau flakoa baztertuta –familia aristokratikoa, moraltasuna–, nazionalismo pagano energikoago, gazteago –haurra– baten alde egin zuen. Horrek, ostrazismora eta heriotzara eramaten du narratzailea; ostrazismoa eta heriotza izan ziren idazle zuberotarraren patua ere.

Nire harridura adieraztea baino ez zait geratzen bukatu aurretik: liburu honek, XX. mendeko euskal literaturaren mugarrietako bat, 50 urte bete ditu aurten. Badirudi ordea, nobelak ez duela deus balio, inon ez baitut ikusi jardunaldirik, ekitaldi ofizialik edo irakurketa publikorik efemeridea gogora ekartzeko. ■

Ezkerrarekin, konplexurik gabe

Ezkerra izateari buruz idatzi du Garbine Ubeda Goikoetxeak *Mila ezker* saiakera. Gehiengoa eskuina den munduan, ezkerrek eragozpen ugari izaten dituztela jakina da, baina zailtasun horietaz jardun beharrean, ezkertasunaz libre jardun nahi izan du Ubedak. Beraz, liburu honetan irakurleak ez du auto-laguntzako aholkurik aurkituko, bai ordea gizakiaren albotasunerako joerari buruz-




Mila ezker.
Garbine Ubeda.
Susa.
85 orrialde.
13,30 euro.

ko gogoeta, munduaren asimetriari buruzkoa eta eskuinaren eta ezkerren arteko osagarritasunari buruzkoa ere. Horrez gain, ezker ezagunen mapa pertsonala ere osatu du Ubedak: Leonardo da Vincirekin hasi, Jimi Hendrixekin segi, Johann Sebastian Bach aurkitu eta Barack Obamarengaino iritsiz. Mila ezker baitago munduan, esateko gauza askorekin. ■

Maitasunak baditu milaka aurpegi

Joy Divisionen kanta ezagun batek esaten zuen maitasunak urratuko gaituela; kontrakoa esatera dator Agustín Fernández Paz-en *Maitasuna da geratzen den bakarra* ipuin-bilduma, Uxue Alberdik euskaratu berri duena. Amodioa baita liburuaren erdigunea: pertsonaiak maitemindu egiten dira, eta sentimendu horren eraginpean zer egiteko gai diren erakusten dute. Baina, beharbada ez dago Fernández Paz hain urruti aipatzen genuen kantatik, liburuan desamodioa ere ezagutuko baitute protagonistek. Maitasuna, azken finean, bere aldaera guztietan. Paulo Auladell-en ilustrazioz jantzia dator Elkarrek prestatu duen edizioa. ■



Maitasuna da geratzen den bakarra.
Agustín Fernández Paz
(Itzul.: Uxue Alberdi).
Elkar.
162 orrialde. 17,85 euro.